

Itzaurrea. Antzuolako Alardea. Mairuaren Jaialdia

Iñigo Ramirez Telleria antzuolatar kondairagille ta irakasle bere jaioterriarentzako maitasuna bultzagai funtsezkoa duala, aurkezten deten liburuaren egillea dugu, eta bere nahia lan honen sarrerako Irakurleari izenburua daraman lerrotan datza.

Gaiaren mamian sartu aurretik, alardeatzaz luzaro mintzatzen zaigu antzuolatar ikerlaria. Bereala adierazten digu zer eta zertarako ziren gure alarde aiek, urteroko arma-erakusketak gauza arruntza eta orokorra bai ziren. Adibidez ikus dezagun 1674. urteko agiri au, Tolosako Artxibo Munizipalean arkitzen dena:

Alarde. Abril 24. Hacer el día de Pascua del Espíritu Santo, eta 1796. beste jakingarri au, Elduaingo Artxibo Munizipaletik artua: Doy en data doscientos veinte y quatro r.v. pagados por el gasto del día de Alarde y pólvora, consta del libramiento y recibo N° 37 ...224.

Item. veinte r.v. pagados a Ignacio de Echeverria, por su mejor tiro... 20

Ospakizun jakin batzuen ingurun arma-erakusketa batzuek gure egunetara-raiño eldu zaizkigu. Auetako bat Antzuolako dugu; urteroko arma-erakusketan bere euskarria duela, –eta au errepikatuko det aurrerago–, uri onen errijai garrantzitsuenak mairuaren inguruko pantomiman du ardatz interesgarria. Onela ba. Iñigo Ramirez Telleria, *Antzuolako Alardeak: Mairuaren Jaialdia* izena daraman ikuskizun oni erantzuna ematen saiatu zaigu, eta gaia illunpe eta naastepilletatik atereaz, bere naia lortu. *Mairuaren Jaialdi* honetaz ez da gutxi idatzi, bestela ez bali leike naaste-porrosterik, baino lantxo oiek, geienbat ariñeri egindakoak izanik, ez dute ikerlan aldetik behar den sendotasunik, aize-orratz antzera giro aldakorrek bein da berriz mugitzen bai ditu.

Goi Erdiaroko guda gertaera erri-jakintza baten tinkatzen da mairuaren inguruko ziñuketa, Valdejunquera izenarekin ezagutzen den erasoaldian, Alardeko buruzagiak adierazten duanez berari egitea datorkion diskurso aldakorrean: *Hala, nafarrak, Castilla eta Leon-go mutilek, etsai doilorraren kontra hasteko, ejertzitu bat osatzeari eman zioten, eta laster ziren beldurgarrizko guda batean, mairuen kontra, eta izentzat Baldejunquera-ko Borroka du* (Liburu onen egilleari artutakoa). Baiñan ikusten danez, Valdejunquerako

ekintza au emeretzki urte geroago (939. urtean) izan zen Simancas-eko borrokarekin naaspillatu xamarra eldu zaigu. Simancas-eko eraso ontan Abd al-Rahman IIIa galtzailea izan zen, eta borroka ontan ikus dezazkegu, Ramirez Telleriaren iritziaz antzuolatarrak partaide. Dena dela, gauza ipotesis baten gelditzen da, begirapen oneko ikerlaria bezala, antzuolatar kondairagille au ez da ausarta, oartzen da ikuspegi istorikoa aldakorra dela eta bere itza ez dela bearbada izango azkeneko itza.


1629. urtean Antzuolak, Bergaratik banakatuaz Billa izatea burutzen du, eta gertakizun onetan datza erri-kondairaren aldetik benetako garrantzia. Antzuolak bere nortazun osoa lortuaz, berarekin bere arma-arria sortzea dakar, eta bi itzetan esateko, arriarma onek eta gertakizunari dagokionezo banderak, ziurrezko urratsekin *mairuaren jaialdira* garamazki. (...) *gure herrian XVII. mendetik aurrera* –Ramirez Telleriak esaten digu– *alardearen betebeharrak* *horrekin batera antzuolar konpainiak Baldejunqueran egindakoa ospatzen hasi zen*, eta urtetan zear jaikizun bere-agiri edo armari baten ikusten du Iñigo Ramirez Telleriak.

Foruak kentzeak berarekin zeraman gure soldaduskako berezitasuna desagertzea. Onek alardearen izana txokoratzen zun; baiñan Antzuolan, esan bezala, arma-erakusketa onek jarraitu zun, izanarekin ez bai zen, bai izenarekin, *mairuaren gertakizun* bitxi onekin bateratuaz, abuztuaren 28an, San Agustin egunean, antziñan bezalaxe.

Euskalerrian ez ditugu arkitzen Antzuolako jaialdi onen gisakoak, eta bearrezkoa genduen ontan onelako ikerketa serio bat, ospakizun onen urbilleko larrak izkutatzeke.

Alardearen organigramak eta musikak, urtetan zear aldakorrak, Iparragirren bertsoak eta abarrek liburua borobiltzen dute. Liburu irakurri erraza, pelikula baten antzera gure aurrean igarotzen zaizkigu gaiaren eta bere inguruko gora-berak. Orri auetan ikus dezazkegu istori bideetatik ustez zeatz dakiguna eta legenda edo tradizioari esker ezagutzen ditugunak, argi eta garbi bakoitza bere lekuan. Irakasteko asmoz idatzia, irakasle bateri dagokion bezala.

Iñigo Ramirez Telleriaren lan baliotsu au irakurri ondoren, *Antzuolako mairuaren jaialdi* onen esan-naia jakinik gelditzen gera, eta au, egillearentzat, ez da nolanaieko elburua lortzea.



Itzaurea / Juan Garmendia Larrañaga. – En :
Antzuolako Alardea. Mairuaren Jaialdia / Iñigo
Ramírez Telleria. – Antzuola : Antzuolako Udala,
[1990]. – 87 p. : il. ; 21 cm. – P. 9-10. – OC. T. 8,
p. 323-325